

2024-2025 matrikulazio aldia dela eta, Aiaraldean berriro ere arazoak izaten ari gara. Oraingoan, derrigorrezko bigarren hezkuntzan. Zaraobe institutua da Amurrio, Artziniega, Aiara eta Urduñako bigarren hezkuntzako zentro erreferentea zonifikazioaren arabera.

Gaur bertan, 6.mailako zentro publikoetako 18 familiari jakinarazi egin zaie haien seme alabentzat beraien erreferentzia zentruan ez dutela plazarik izango hurrengo ikasturtean. Hori dela eta itunpekoetara bidaliko dituzte, institutu publiko bat beraien aukera bakarra izanda. Hezkuntza lege berriaren ondorioak matrikulazioetan azken urteotan pairatu ditugu, baina hau lehen aldia izan da derrigorrezko bigarren hezkuntzan gertatzen dela. Gainera, familiei zein zentrueri ez zaie banaketa honen irizpideak adierazi. Erabaki penagarri honen beste ondorioa, zenbait anai-arreben banaketa ekarriko du eta zer esan umeengan izango duen inpaktu emozionala, haien ikaskideengandik eta familiengandik bereizteagatik.

Hau dela eta, Aiaraldeko Hezkuntza Publikoa Bizirik plataformak ankerkeri berri hau salatu nahi du eta familia kaltetuei gure babesa adierazi nahi diegu.

AIARALDEKO
HEZKUNTZA
PUBLIKOA
BIZIRIK 